



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/01/18

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek "atxikitu bako" kidearen figura sartuko dabe arautegian**

Gaur goizean Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak Batzarretako arautegi gaztearen lehenengo aldaketea onartu dau, "atxikitu bako" kidearen figura sartu ostean. Batzarretako talde guztiek, aurretik Arautegi eta Gobernu Batzordean adostutako testuaren aldeko botoa emon dabe, abstenidu egin dan Talde Mistoko kideak izan ezik. Aldaketa horrek, "orain urte asko toki mailan martxan jarri zan eta Autonomia Erkidegoetako Legebiltzar gehienetara arin zabaldu zan" figura hori sartzen dau.

Aldaketea Bizkaiko talde politikoez adostu dabe, maiatzean Podemos Bizkaia taldeak Arauzko Proposamena erregistrau ostean, Batzarretako arautegian "atxikitu bako kidearen figura sortzea eta arautzea" sartzeko. Ekimen hori, joan dan urteko martian, Arturo Aldecoa PPko batzarkide ohia talde Popularretik kanporatua izan eta, berak bakarrik, Talde Mistoa osatu ostean, jarri zan martxan.

Aldaketa horregaz, Bizkaiko Batzarrek, alderdi politiko baten aldeko botoa emotean, alderdi horrek ordezkatzan dauen "ikuspegi ideologikoa eta politikoa kontuan izanda" jarduteagaz "bat etortea" gura dabe, eta horrek islea izan behar dau talde politikoez Batzarretan daukien proiektinoagaz.

Aldaketa garrantzitsuena beste artikulua bat sartzen dala da (21 bis). Artikulu horretan ezarten danez, ezein taldetan sartzen ez diran ordezkariak "atxikitu bako" kide moduan hartuko dira, eta gauza bera gertatuko da talde batekoak izateari izten deusienakaz "eurak halan gura izan dabelako edo kanporatuak izan diralako". Atzera begirako izaerarik ez dauen arauan ezarten danez, hemendik aurrera, atxikitu bako kideak ezin izango dira beste ezein taldetan sartu –ezta Talde Mistoa be– legealdi osoan. Euren artean be ezin izango dira alkartu, eta ez dira Batzarretako talde moduan hartuak izango.

Ordainketa ekonomikoez jagokenez, atxikitu bako batzarkideek, Batzarretako kideentzat "norbanako moduan" arauz ezarten diran ordainketak "baino" ezin izango ditue jaso.

Batzarretako organuetan izan daikien partaidetzeari jagokenez, atxikitu bako kideek "norbanako moduan" izango ditue parte hartzeko eskubideak eta gaitasunak. Hori bai, arautegian Batzarretako kide guztientzat arautzen diran informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko eskubide eta gaitasun guztiak izango ditue.

Bozeroaleen Batzordea entzun ostean, Batzarretako Mahaia izango da atxikitu bako kideek batzordeetan izango daben partaidetzea, 12. artikuluan xedatutakoa eta propotzinonaltasuneko printzipioa kontuan izanda, eta Osoko bilkuretan esku-hartzeko izango daben modua erabagiko dituana.

**BIZKAIBUSEKO KABINAK**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Beste alde batetik, gai horren ostean, osoko bilkurak EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen zuzenketa-eske transakzional bat onetsi dau. Zuzenketa-eske horrek talde popularraren mozinoa aldatu dau, “Bizkaibuseko kabinen mantentze-lanakaz eta eguneratzeagaz konpromiso argia” adierazoteko.

Holan, aldeko 32 botogaz (EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa) eta 13 abstentzinogaz (EH Bildu eta Podemos Bizkaia) onetsi dan testuak, hau eskatzen deutso Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko Foru Sailari: “lanpostuei eusten jarraitzeko”; kabinen kanpoaldean eskintzen dan informazioaren eukia eta aurkezpena normalizetan jarraitzeko; eta udal lokaletan kabinek eskintzen dituen zerbitzuen barri emoteko aukerea Udalakaz negoziatan jarraitzeko, erabiltzaileei zerbitzu gehiago eskini ahal izateko beharrezkoak diran baliabideak izan daiezan.

#### "GAITZESPENA" EHU/UPVKO INDARKERIAZKO EKINTZEN AURREAN

PP taldeak aurkeztu dauen mozino baten bitartez, Bizkaiko Batzarrek euren “gaitzespena” erakutsi dabe Euskal Herriko Unibersidadeko Leioako campusean gertatu ziran indarkeriazko ekintzen aurrean eta “alkartasuna” agertu dabe zauritutako hiru pertsonen aurrean. Testuak Batzarretako talde guztien baiezkoa jaso dau, abstenidu egin dan Podemos Bizkaiaarena izan ezik. Talde moreak ordezeko testu bat aurkeztu dau “indarkeriazko ekintzen aurreko erabateko gaitzespena eta horren ondorioak jasan ebezan pertsoneri erakutsi beharreko laguntzea” erakutsiz.

#### ONARTU EZ DIRAN MOZINOAK

EH Bilduk, bere aldetik, mozino bat ekarri dau Osoko Bilkurara, Aldunditik udal egoitzakaz akordio integrala bultzatu daiten, gizarte zerbitzuak banatzeko eta Udalek euren esku hartzen dituen plazen kostu ekonomikoak bere gain hartzeko. Ekimena ez da onartu, kontrako 28 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), aldeko 14 (EH Bildu eta Podemos Bizkaia) eta 4 abstentzino (PP eta Talde Mistoa) jaso ditualako.

Koalizino abertzaleak ez ditu lortu, ezta be, Foru Aldundiari “El Olimpo-La Salveko Kuartela” eraikinaren jaubetzea eta erabilerea berreskuratzeko eskaria egiteko behar ebazan botoak. Bilboko eraikin hori Estaduaren esku dago 1958tik, Goardia Zibilaren kuartel moduan erabilteko. Eskariak Podemos Bizkaia taldearen aldeko botoak jaso ditu, baina EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa kontra agertu dira, euren eretziz Foru Aldundiak ezin dauelako ondasun hori eskatu “gaur egun kuartel moduan daukan erabilerea amaitu arte”.

#### EZEZKOA LEGEALDIKO LEHENENGO IKERKETARAKO BATZORDEA SORTZEARI

Saioa EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek, batera, egin daben eskariagaz amaitu da, Bizkaiko Batzarrek ikerketarako batzordea zabaldu daien, suhiltzaile-gidari izateko 2016ko irailaren 24an izandako hauta-probetako lehenengo azterketan izandako gorabeherak dirala eta. Hainbat pertsonak komunikabideen aurrean salatu ebenez, hautagai batzuek galderak “aurretik” ezagutzen ebezala emoten eban.

Batzarrak ez dau onartu batzorde hori zabaltzerik, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz, talde horreek ontzat emon dituelako bere egunean Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak gai horren inguruan batzordean emon ebazan azalpenak. Talde biek ez dabe ikusten batzorde berezia sortzeko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

beharrrik, proben aurrean ez dalako ezelango inpugnazinerik edo salaketarik aurkeztu ESPko epaimahai “teknikoaren”, Aldundiaren edo ohiko justiziaren aurrean.

Ikerketarako batzordea zabaltzearen kontrako eretxi horregaz bat egin dabe PPK eta Talde Mistoak, euren ustez, “holango” organu bat sortzeko datu “erabakigarriagoak” ekarri behar diralako mahai gainera. Dana dala, abstenidu egin diran popularrek, “susmoak” ikertzeko eskatu deutsie Aldundiari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
18/01/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia incorporan a su reglamento la figura del miembro "no adscrito"**

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia celebrado esta mañana en Gernika ha aprobado la primera modificación del joven reglamento de la Cámara tras incorporarse la figura del miembro "no adscrito". Todos los grupos junteros, a excepción del representante del grupo Mixto que se ha abstenido, han votado a favor de un texto consensuado previamente en la Comisión de Reglamento y Gobierno, que incorpora esta figura implantada "desde hace años en el ámbito local y rápidamente extendida también a la gran mayoría de Parlamentos autonómicos".

La reforma ha sido consensuada por los grupos políticos vizcaínos después del registro en mayo de una Proposición de Norma de Podemos Bizkaia para introducir en el reglamento de la Cámara territorial la "creación y regulación de los miembros no adscritos". Esta iniciativa arrancó en el parlamento después de que el pasado mes de marzo el exjuntero del PP Arturo Aldecoa fuera expulsado del grupo Popular, y pasara a integrar el grupo Mixto en solitario.

El Parlamento vizcaíno pretende con tal cambio "ser consecuente" con el hecho de que al votarse por un partido político se actúe "en razón de la perspectiva ideológica y política" que tal formación representa, lo que debe tener su reflejo en la proyección de los grupos junteros en el hemiciclo.

La modificación más notoria es la incorporación de un nuevo artículo (el 21 bis) en el cual se establece que los representantes que no se adhieran a ningún grupo tendrán consideración de "no adscritos", al igual que quienes dejen de pertenecer a un grupo "bien voluntariamente o bien por expulsión". Según se establece en la norma, que no tiene carácter retroactivo, a partir de ahora los miembros no adscritos no podrán incorporarse a ningún otro grupo -incluido el Mixto- en toda la legislatura. Tampoco podrán asociarse entre sí, ni tener la consideración de grupo juntero.

En lo que se refiere a su retribución económica, se establece que las apoderadas y apoderados no adscritos "sólo" podrán percibir las asignaciones que se establezcan reglamentariamente para los miembros de la Cámara "a título individual".

Con respecto a su participación en los distintos órganos parlamentarios, los miembros no adscritos tendrán los derechos y facultades de participación "de forma individualizada". Contarán eso sí con el derecho de acceso a la información y documentación que el reglamento regula para todos los miembros de la Cámara.

La Mesa del Parlamento, oída la Junta de Portavoces, será el órgano que concrete la participación en las comisiones de los miembros no adscritos, atendiendo a lo dispuesto en el artículo 12 y al principio de proporcionalidad, y determinará el modo de su intervención en los debates plenarios.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## CABINAS DE BIZKAIBUS

Por otro lado, el pleno ha aprobado a continuación una enmienda transaccional de PNV, PSE-EE y PP, que ha venido a sustituir una moción de los populares, para expresar un “claro compromiso con el mantenimiento y actualización de las cabinas de Bizkaibus”.

En concreto, el texto, aprobado por 32 votos a favor (PNV, PSE-EE, PP y Mixto) y 13 abstenciones (EH Bildu y Podemos Bizkaia), insta al departamento foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio a “continuar defendiendo el mantenimiento de los puestos de trabajo; seguir normalizando el contenido y la presentación de la información en la parte exterior de las cabinas; y continuar negociando con los ayuntamientos la incorporación de los servicios que prestan las cabinas a locales municipales, para que puedan disponer de los medios necesarios para ofrecer un mayor número de servicios a las personas usuarias”.

## "REPULSA" A LOS ACTOS VIOLENTOS DE LA EHU/UPV

Por medio de una moción del PP, el Parlamento ha mostrado su “repulsa” a los actos de violencia que se produjeron en el campus de Leioa de la Universidad del País Vasco, y su “solidaridad” con las tres personas heridas. El texto ha contado con el sí de todos los grupos junteros, menos Podemos Bizkaia que se ha abstenido. La formación morada había presentado un texto alternativo en el que también mostraban “su más absoluto rechazo a los actos violentos y su apoyo a las personas que sufrieron sus consecuencias”.

## MOCIONES RECHAZADAS

Por su parte, EH Bildu traía al pleno una moción con el propósito de que la Diputación promoviera un acuerdo integral con las residencias municipales para distribuir los servicios sociales y asumiera los costes económicos de las plazas que son sustentadas por los ayuntamientos. La iniciativa ha sido desestimada por 28 votos en contra (PNV y PSE-EE), 14 a favor (EH Bildu y Podemos Bizkaia) y 4 abstenciones (PP y Mixto).

La coalición abertzale tampoco ha logrado los apoyos necesarios para sacar adelante otra moción con la que instar a la Diputación a recuperar la propiedad y el uso del inmueble “El Olimpo-Cuartel de La Salve”, en Bilbao, en manos del Estado desde 1958 para su uso como cuartel de la Guardia Civil. La demanda ha obtenido el apoyo de Podemos Bizkaia, mientras que PNV, PSE-EE, PP y Mixto han mostrado su desacuerdo por entender que la institución foral no puede reivindicar ese bien “hasta que no cese el uso actual del cuartel”.

## NO A LA CREACIÓN DE LA PRIMERA COMISIÓN DE INVESTIGACIÓN DE LA LEGISLATURA

La sesión se ha cerrado con el debate de una petición conjunta de EH Bildu y Podemos Bizkaia para que la Cámara vizcaína abriera una comisión de investigación por las circunstancias que rodearon la realización de unas pruebas para “bombero/a-conductor/a”, celebradas el 24 de septiembre de 2016. Varias personas “denunciaron en los medios de comunicación” la posibilidad de que algunos aspirantes conocieran las preguntas “de antemano”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

La Cámara ha rechazado la apertura de esta comisión con los votos en contra de PNV y PSE-EE que han dado por buenas las explicaciones que ya ofreció en comisión la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, en relación a este asunto. Ambos grupos no entienden la creación de una comisión especial cuando las pruebas ni siquiera han sido impugnadas o denunciadas ante el tribunal “técnico” de la OPE, la Diputación o la justicia ordinaria.

A este rechazo a la apertura de una comisión de investigación, se han sumado también el PP y el grupo Mixto por considerar que para crear un órgano "de este calado" se deben traer datos “más concluyentes”, aunque los populares, que se han abstenido, han pedido a la Diputación que investigue "las sospechas".